

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Hirigintza hitzarmena onartzea

Bat etorri ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, EAeko Lurzoruaren eta Hirigintzarenak, 7. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da udal honen, Sabandoko Administrazio Batzarraren eta J. V. A. ren arteko hirigintza hitzarmena, zeinen xedea baita arautzea Sabandoko SUR 4ko 5. fitxaren hirigintza kargak betetzea, hogeitun egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, egoki jotzen diren alegazioak aurkezteko; erreklamaziorik aurkezten ez bada, hitzarmena behin betiko bihurtuko da, besterik gabe.

Hitzarmenaren testua:

HITZARMENA SABANDOKO SUR 4KO 5. FITXAREN HIRIGINTZA KARGAK BETETZEKO

AGERTZEN DIRA

Anartz Gorrotxategi Elorriaga, Arraia-Maeztuko alkate lehendakaria, Udalaren izenean,
Esterban Pérez de Arenaza García de Acilu, Sabandoko Administrazio Batzarreko errejidore lehendakaria, hitzarmen hau sinatzeko ahaldundua, eta

J. V. A., 16223621-L NANan zenbakia duena, Sabandoko (Arraia-Maeztu) bizilaguna,

Elkarri aitortzen diotelarik hitzarmen hau egilesteko gaitasuna,

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. J. V. A. Sabandoko katastroko 6. poligonoko 50, 96, 984, 985 eta 986 lurzatiak jabea da.

Lurzati horiek Sabandoko SUR 4ko 5. fitxan daudela sartuta, udalerrian indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioen arabera, zeinetan nahitaezko lagapen bakar gisa aurreikusitakoa baita 6. poligonoko 985 lurzatiaren hego mugan dagoen 64 metro karratuko lursail baten hirigintza lagapena.

6. poligonoko 985 lurzatiak J. V. A. ren izenean dago jabetza erregistroan inskribatuta: 6218 zenbakiko finka, 4830 liburukia, 91. liburua, 24. folioa.

Bigarrena. 2016ko irailaren 14ko 171/2016 Dekretuaren bidez, eta aurrez udalaren zerbitzu teknikoek aldeko txostena eginda, J. V. A. ri baimena eman zaio 6. poligonoko 985 lurzatiak banantzeko, jabeak aurkeztutako lurzatiak proiektuaren arabera, lurzati hauetan:

- A. Hiri lurzati eraikigarria, 1.021, 89 metro karratukoa.
- B. Hiri lurzati eraikigarria, 1.046,84 metro karratukoa.
- C. Nahitaezko hirigintza lagapeneko lurzatiak, bide publikoak zabaltzeko.

Azalera: 64 metro karratu.

Banantzetik ateratzen diren bi lurzati eraikigarriek, a) eta b), indarrean dagoen planeamenduen arabera, nahitaezko hirigintza lagapeneko lursailak, 64 metro karratu eta aurrealdean 6 metroko kale zabalera duena, urbanizatze behar den hirigintza karga dute.

Hirugarrena. Sabandoko Administrazio Batzarrak, herriko bide publikoen jabe den aldetik, eta horien artean 6. poligonoko 985 lurzatiarekin muga egiten duen eta Eguerdi kale izena ematen zaion bide publikoarena, oraintsu egin du herriko azpiegiturak berritzeko eta zolatzeko proiektua; lan horiek egitean, behea jo zuen 985 lurzatiaren eta oraingo bide publikoaren artean zegoen antzinako euste hormak, eta hormigoizko horma berri bat eraiki zen, aurrekoaren leku berean, bide publikoan.

Oraingo 985 lurzatian hirigintza lagapeneko 64 metro karratuak urbanizatu ahal izateko, oraintsu lurzoru publiko mugakidean egindako hormigoizko horma bota egin beharko luke Administrazio Batzarrak.

Horregatik, behar diren elkarrizketak eginda eta ulertuta interes publikoaren ikuspegitik ez dela komeni oraingoz ezer egitea Sabandoko Administrazio Batzarrak oraintsu egindako hormarekin, eta hobe dela itxarotea hark 6. poligonoko 985 lurzatiarekin muga egiten duen bide publikoa zabaltzeko obrak egin arte, orduan botako delarik oraingo horma, sinatzaileek

HITZARTZEN DUTE

Lehenengoa. J. V. A.k Arraia-Maeztuko Udalari lagatzen dio, nahitaezko hirigintza lagapen gisa, behar den banantzea egin eta gero, katastroko 6. poligonoko 985 lurzatiaren lurzaticatze proiektuan deskribatzen den 64 metro karratuko lurzattia.

I. eranskin moduan dago lurzaticatze proiektutik ateratzen diren finken planoaren kopia.

Orobat, 7.201, 18 euro ordaindu behar dira, Sabandoko SUR 4ko 5. fitxako hirigintza kargen zenbatekoa hori baita, udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera.

II. eranskin moduan dago zenbateko hori kontu korrontean sartu izanaren txekearen/ordainagiriaren kopia.

Bigarrena: Arraia-Maeztuko Udalak, hirigintza erakunde eskudun den aldetik, onartu egiten du nahitaezko hirigintza lagapeneko lursailaren lagapena, eta Sabandoko Administrazio Batzarraren esku uzten du, hura baita 6. poligonoko 985 lurzatiarekin muga egiten duen bide publikoaren jabea, okupatu ahal izan dezan administrazio batzarrak bide publikoa zabaltzea erabakitzen duenean.

Era berean, onartu egiten du 7.201, 18 euroko ordainketa, Sabandoko SUR 4ko 5. fitxako hirigintza kargak dirutara ekartzearen kontzeptuan, eta betetzat jotzen ditu jarduketa horren hirigintza kargak. Zenbateko hori Sabandoko Administrazio Batzarraren esku jarri behar da, nahitaezko hirigintza lagapeneko lursaila urbanizatzeko, administrazio batzarrak eta interes publikoagatik hala erabakitzen duenean, Eguerdi kaleko bide publikoa zabaltzea.

Hirugarrena. Sabandoko Administrazio Batzarrak onartu egiten du hitzarmen honen lehenengo puntuan definitutako 64 metro karratuko lursaila bere esku uztea, eta 7.201, 18 euroak jasotzea, eta konpromisoa hartzen du diru hori oso-osorik erabiltzeko planeamenduan bide publikoa zabaltzeko dagoen lurzati hori urbanizatzeko obretan, bide publiko hori zabaltzeko proiektua onartzen denean.

Laugarrena. J. V. A.k baimena ematen du erabilera publikorako zortasun eskubide bat eratzeko Sabandoko Administrazio Batzarraren alde, katastroko 6. poligonoko 985 lurzattia banantzean ateratzen diren lurzatiaren hego mugan, lurzaticatze proiektuaren 1. eranskineko P 01 eta P 02 planoetan agertzen denaren arabera, zeina 2016ko uztailean aurkeztu baitzen udal bulegoetan.

III. eranskin moduan dago lurzaticatze proiektuaren 1. eranskineko P 01 eta P 02 planoen kopia.

Hala, ateratzen den 1.021,89 metro karratuko 985 a) lurzattia erabilera publikoko zortasun batez kargatuta geratzen da, zeinak ateratzen den lurzatiaren hego ekialdeko mugako 67,92 metro karraturi eragiten baitio; eta 1.046,84 metroko 985 b) lurzattia erabilera publikoko beste zortasun batez, zeinak ateratzen den lurzatiaren hego mendebaldeko mugako 11,63 metro karraturi eragiten dion.

Horregatik, nahiz eta ateratzen diren 985 a) eta 985 b) oso-osorik jabetza pribatukoak diren, Sabandoko Administrazio Batzarraren aldeko erabilera publikoko zortasun batez kargatuta geratzen dira, deskribatutako azaleretan, gerora horma bat egiteko afektatu ahal izan daitezen, Administrazio Batzarrak berea den bide publikoa zabaltzen duenean, 64 metro karratu dituen eta hitzarmen honen bigarren puntuan deskribatu den nahitaezko hirigintza lagapeneko lur-sailaren kontura, jabetza publikokoa izatera igaro baita. Hori guztia, bide publikoa zabaltze horrek ekarriko baitu oraingo hormigoizko horma botatzea eta lurzati pribatuen azalera horien afektazioa, ezpona bat eraikiz, lurzatiak proiektuaren 1. eranskineko P 01 eta P 02 planoetan deskribatzen den moduan.

Konpromisoa hartzen dute, orobat, ateratzen diren eta erabilera publikoko zortasun eskubi-deak afektatuta dauden lurzati azaleretan ez jartzeko inolako hesi, okupazio edo oztoporik, gerora eragozgarri izan daitekeen hitzartutako moduan urbanizatzeko eta ezpona ondo egin ahal izateko.

Bosgarrena. Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, horregatik, aldeak izaera horretako ordenamendu juridikoaren eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jartzen dira hitzarmena interpretatu, aplikatu edo betetzean sortu litezkeen desadostasun guztiak ebazteko.

Eta azaldu eta hitzartutakoarekin bat datozen frogak gisa, parte hartzaileek, bakoitzak diharduen izaeran eta ordezkartzan, agiri hau sinatzen dute hiru kopian eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Maeztu, 2016ko irailaren 22a

Alkate lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA